



IKASKETA ZERBITZUA

LA PARTICIPACIÓN COMO HERRAMIENTA EDUCATIVA

JARDUNALDIA • JORNADA
azaroak 6 noviembre | 2015
San Telmo (DONOSTIA)

Jolas eta Ekinek irudikatzen duen eskola motak munduaren irakurketa kritikoa egiteko, bizitzaren arlo ezberdinetan eta egoeretan moldatzen jakiteko eta balio solidario eta gizatiarrago batzuen babespean berrikuntzarako tresnak eman behar dizkie pertsonari.

Ekimena, sormena eta **parte-hartzea** krisian eta etengabeko aldaketan dagoen **gizarte batek eskatzen dituen tresna** eta **gizarte trebetasunak** dira. Horrek behar-beharrezko bihurtzen du ziurgabetasunez beteriko etorkizunari aurre egiteko moduan dauden pertsonak prestatzea, tresna horiek eta etika solidarioa izango dituzten pertsonak.

Hau lortzeko Jolas eta Ekin **Ikasketa-Zerbitzu Solidario (I+ZS)** eredu pedagogikoaz baliatzen da. Metodologia honen bidez inguru hurbilean egindako **proiektu solidario bat** egiten dugun bitartean ikasleen **oinarrizko kompetentziak garatzen** eta **edukiak ikasten** ditugu, **asmo pedagogikoak eta solidarioak** elkartuz.

Tresna honek **arrakasta handia** du aurrera eramaten animatzen ari diren ikastetxeen artean, batez ere, ikasle eta irakasleengan izaten dituen **emaitza onak** direla eta.

Metodologia hau zabaltzeko eta hobeto ezagutzeko **IKASKETA-ZERBITZUA. La Participación como Herramienta Educativa Jardunaldia** antolatu dugu **Berritzegunearekin** batera. Hau **azaroren 6an Donostiako San Telmo Museoan** izango da eta bertan **Roser Batlle**, pedagogo, I+ZSaren aditua eta Estatuko Ikasketa-Zerbitzu Sarearen Presidentea (aprendizajeservicio.net - roserbatlle.net), **Ana Extramiana**, Berritzeguneko I+ZSko aholkulari aditua, eta Euskadi mailako ikastetxeen **esperientziak** egongo dira: **Toki-Alai BHI** (Irun), **The English School** (Donostia) eta **San Viator Ikastetxea** (Vitoria-Gasteiz).

[Jolas eta Ekin](#), **InteRed Euskal Herria**, **SERSO San Viator** eta **Gizakien Lurraren** proiektua da.

HELBURUAK

1. Ikasketa-Zerbitzuaren oinarriko terminoak eta honen balio pedagogikoa zabaltzea.
2. Parte-hartzaileek bizi izandako, ezagututako edo bultzatutako Ikasketa-Zerbitzuko esperientziak identifikatzea eta elkartrukatzea.
3. Etorkizuneko proiektu konkretuetan I+ZSa sustatzea.

EGITARAUA

9:15 - 9:30.

Harrera

09:30 - 10:00.

Aurkezpena: Jolas eta Ekin eta Berritzegunea. [eusk/cast]

Jolas eta Ekinek, Garapenerako Hezkuntzaren ikuspuntutik, eta Berritzeguneak, Hezkuntza Formalaren ikuspuntutik, jardunaldia aurkeztuko dute eta azalduko dute zeintzuk diren haien arrazoiak Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioaren aldeko apustua egiteko, bere onurak azalduz.

10:00 - 11:30.

Hitzaldi/tailer: Roser Batlle. Pedagogoia, I+ZSaren aditua eta Estatuko Ikasketa-Zerbitzu Sarearen Presidentea (aprendizajeservicio.net - roserbatlle.net). [cast]

Film, ariketa eta jolasen bidez Ikasketa-Zerbitzu Solidarioaren inguruko zalantzak eta gakoak argitzen saiatuko gara, eta, aldi berean, I+ZSaren gainean hausnartuko dugu hezkuntza-arrakasta eta gizartearekin konpromisoa lortzeko tresna bezala.

11:30 - 12:00.

Atsedena

12:00 - 13:00.

Esperientziak:

- 1) **The English School** (Donostia) [eusk]
- 2) **Toki Alai BHI** (Irun) [eusk]
- 3) **Colegio San Viator** (Vitoria-Gasteiz) [cast]

Ikastetxe hauek azken urteetan Lehen eta Bigarren Hezkuntzan egin dituzten I+ZS proiektuak aurkeztuko dituzte, metodologia honen aukerak, zailtasunak eta, batez ere, onurak azalduz.

13:00 - 14:00.

Tailer

Nola jarri abian nire ikastetxean I+ZS? [eusk/cast]

Ikastetxe guztietan elkartasun proiektuak eta/edo kultur-ekintzak egiten dira, zer egin dezakegu ekintza hauek Ikasketa-Zerbitzuetan bilakatzeko?

Dinamizatzaileak: Roser Batlle, Ana Extramiania, San Viator Ikastetxe, The English School y Toki-Alai BHIko irakasleak, eta Jolas eta Ekineko teknikariak.

14:00 - 14:30.

Eztabaida eta ondorioak. [eusk/cast]

NORI ZUZENDUA

- Irakasleak [Lehen, Bigarren edo Goi Mailako hezkuntzakoak]
- Ikastetxeetako zuzendaritza taldeak
- Orientatzaileak eta pedagogoak
- Magisteritza eta Pedagogia ikasleak
- Gizarte Langileak eta Hezitzaileak
- GKEetako teknikariak
- Guraso Elkarateak
- Aisialdiko Begiraleak
- Interesatuta dagoen edonor

Data:

2015eko azaroaren 6an.

Lekua:

San Telmo Museoa (Plaza Zuloaga, 1, 20003 Donostia).

Ordutegia:

9:15 - 14:30

Izen ematea:

Musutruk.

Epea: irailak 1 - azaroak 4 [12:00k baino lehen]

[IZEN EMATEA ON-LINE](#) (izen ematea derrigorrezkoa)

Info +:

945 22 65 95 - jolasetaekin@gmail.com

Antolatzaileak:

JolasetaEkin!!



Languntzaileak:



donostiakultura.com

JolasetaEkin!!



Finantziatzailea/
Financiador:

